



FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
23/06/2026



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
24/06/2026

2026ko APIRILAREN 29AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2026ko apirilaren 29an ,arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udalidazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: M^a Mar Ansorena, Julen Beunza, Javier Auza, Iker Isiegas, Mikaela Elizalde eta Alaia Etayo

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Martxoaren 26ko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena, inork eragozpenik agertu ez duenez.

2.- Alkate ebazpenak.

Ondoren zehazten diren alkate ebazpena onartu ditu alkateak azkeneko hilabete honetan:

- 2026/53 alkate ebazpena Jauntsarasko Oihanzabal eskolako inguratzaile termikoa egiteko proiektuaren idazketa eta obra zuzendaritza zerbitzua kontratua "Monente Arquitectura"ri esleitzea, 19.168 euroko aurrekontuarekin (BEZ kanpo), proiektua idazteko epea 4 astekoa izanik.
- 2026/54 alkate ebazpena Itsasoko 4. Poligonoko 431. Lursailean fruitu lehorrak gorde eta txigortzeko biltegia egiteko obra baimena emanaz.
- 2026/55 alkate ebazpena Itsasoko 4. Poligonoko 431. Lursailean fruitu lehorrekin ekoizpenak egiteko lantegia egiteko obra baimena onartuz.
- 2026/56 alkate ebazpena onartuz Javier Herranz Oiz 72701153Q NAN zenbakidunak aurkeztutako aurrekontua eta esleitzea Javier Herranz Oiz





FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
23/06/2026



FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
24/06/2026

72701153Q NAN zenbakidunari, Jauntsarasko baso babesletik doan bidea zolatzeko obra, 2.650 euroko aurrekontuarekin BEZ kanpo.

- 2026/57 alkate ebazpena onartuz, Jauntsarasko Oihanzabal eskolako ingurutzaila termikoa egiteko proiektuaren idazketa eta obra zuzendaritza zerbitzua kontratua Monente Arquitecturari behin betikoz esleitzea, 19.168 euroko aurrekontuarekin (BEZ kanpo), proiektua idazteko epea 4 astekoa izanik.
- 2026/58 alkate ebazpena onartuz baimena ematea Yolanda Arribas Gimeneri, Jauntsaratsen dagoen udal polikiroldegia apirilaren 18an, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 18:00etara kantu topaketa bat egiteko.
- 2026/59 alkate ebazpena onartuz Garazi Mercero Martinenari baimena ematea Aizarotz eta Beramendi arteko udal saretik ur lotura egiteko.
- 2026/60 alkate ebazpena onartuz Alzuguren Machicote Santiago eta Astiz Muin Jose Marik aurkeztutako eskaera 2497 GNS matrikuladun autoaren behin betiko bajagatik, 2026ko zirkulazio zergaren erreziboa bueltatzeko.
- 2026/61 alkate ebazpena onartuz Carlos Betelu Berrok aurkeztutako eskaera 1490 DPP matrikuladun autoaren behin betiko bajagatik, 2026ko zirkulazio zergaren erreziboa bueltatzeko.
- 2026/62 alkate ebazpena onartuz Comercialización de Plantas Lorea IFZ B71020887 zenbakidunak aurkeztutako aurrekontua eta esleitzea Comercialización de Plantas Lorea IFZ B71020887 zenbakidunari, Jauntsarasko baso babeslearen bigarren faserako polydium vulgare planten hornidura 1.620 euroko aurrekontuarekin BEZ kanpo.
- 2026/63 alkate ebazpena onartuz Aguirre Ornamentales y Forestales S.L IFZ B26442509 zenbakidunak aurkeztutako aurrekontua eta esleitzea Onartzea Aguirre Ornamentales y Forestales S.L IFZ B26442509 zenbakidunari, Jauntsarasko baso babeslearen bigarren faserako Crataegus monogyna y Cornus sanguinea planten hornidura 2.201,10 euroko aurrekontuarekin BEZ kanpo.
- 2026/64 alkate ebazpena onartuz Basobosque S.L IFZ B71528459 zenbakidunak aurkeztutako aurrekontua eta esleitzea Basobosque S.L S.L IFZ B71528459 zenbakidunari, fasean QR formatuko soinu fondoa duen harrera kontaketa egitea, 7.000 euroko aurrekontuarekin BEZ kanpo.
- 2026/65 alkate ebazpena onartuz Imanol Biurrarena Barrenetxeak aurkeztutako aitorpen arduratsua eta aurrekontua Udabeko 1. Poligonoko 10. Lursailean dagoen eraikinaren teitatu berritzeko, eta ondoren zehazten den moduan EIOZren likidazioa.
- 2026/ 66 alkate ebazpena Jose Manuel Ochotorena Elizegik aurkeztutako eskaera onartuz, hortaz luzatzea Ihabengo 3. Poligonoko 270. Lursailean dagoen etxebizitza eraberritzeko obra baimena, 2017/1 Legegintzako Foru Dekretuaren 197.8 artikulua araberak.
- 2026/67 alkate ebazpena Berueteko 11. Poligonoko 87. lursailean dagoen etxebizitzan bi komun berritzeko obra baimena onartuz Luisa Astizi.





FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
23/06/2026



FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
24/06/2026

Bildutakoek ontzat ematen dituzte orain arteko alkate ebazpenak.

3- Ultzanueta Zerbitzuen Mankomunitateko administrari zerrendan parte hartzeko atxikipena.

Alkateak azaltzen du Ultzanueta zerbitzuen mankomunitetik administrari zerrenda egin behar dutela jakinarazi dutela, haiek kudetuko dute prozesua eta atxikitzea nahi badute ondoko udalak, batzarrean onartuko behar dute. Alkateak irakurtzen du mankomunitateak bidalitako jakinarazpena zerrenda osatzearen ingurukoa eta bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartze dute.

Onartzea atxikitzea Ultzanueta zerbitzun mankomunitateak administrari ofizial lanposturako zerrenda arautzen dituen oinarrietara.

Erabaki hau Ultzanueta Zerbitzun Mankomunitateari helarazi.

4.- 2026ko lan egutegia.

Alkateak irakurtzen da 2026ko lan egutegiaren proposamena, langileek aurkeztutakoa eta ondokoa dena:

2026ko lan egutegia, pestak eta egun ez baliodunak.

- Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna.
- Urtarrilaren 6a: Errege eguna.
- Martxoaren 19a: San Jose.
- Apirilaren 2a: Ostegun santua.
- Apirilaren 3a: Ostiral santua.
- Apirilaren 6a: Pazko astelehena.
- Maiatzaren 1a: Langileen eguna.
- Abuztuaren 15a: Andre Mariaren Jasokundea.
- Urriaren 12a: Espainiako Jai Nazionala.
- Azaroaren 2a: Santu Guztien egunaren biharamuna.
- Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierkoa.





FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIOZ
23/06/2026



FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
24/06/2026

- Abenduaren 4a. Tokiko pesta.

-Abenduaren 8a: Andre María Sortzez Garbia.

-Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

Baliogabeak izanen dira, 2026. urtean epeak kontatzeari dagokionez, larunbat eta igande guztiak eta ebazpen honen lehenbiziko xedapenean adierazitako jaiegunak.

Basaburuko udaleko langileen egiazko lan orduen urteko kopurua 1.592 da, bat etorritik abenduaren 26ko 26/2012 Foru Legearekin. Sobeeran dagoen ordu poltsarekin, abenduak 24 eta 31ean lanaldia 3 ordu eta 20 minututan murriztuko da.

Astelehenetik ostiralera bitarteko eguneroko lanaldia, oro har, 7 ordu eta 20 minutu izanen da. Arreta ordutegia goizeko 9etatik eguadiako 13:30etara izango da eta ohiko lanaldia goizeko 7:00etatik eguadiako 16:30 arteko orduetan burutu ahalko dute langileek.

Onetsitako lan-egutegiaren arabera Udaleko langileek 27 opor egun izanen dituzte, bai eta norberaren aferetarako 3 egun ere, langile bakoitzaren lan-kontratuaren arabera, antzinatasunaren arabera eta legez aplikatu beharreko gainerako gaien arabera dagokion proportzioan.

Beti ere, 2026rako, orokorrean, Nafarroako Administrazio Publikoetarako behin betiko ezartzen den urteko lanaldiak baldintzatuko du urteko lanaldiaren iraupena. Horren ondorioetarako, aldaketaren bat izanez gero, behar diren doikuntzak egingen dira.

Hortaz tokiko pesta bezala abenduak 4 jartzea proposatzen dute eta ordu poltsarekin bai abenduak 24 bai 31ean 12etan jardunaldia bukatzea.

Bildutakoek ontzat ematen dute proposamena eta onartzen dute Basaburuko udalerako jardunean dauden langileen 2026ko lan egutegia eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute.

5.- Etxe hutsen ordenantza fiskala. Hasierako onespina.

Alkateak azaltzen du ordenantza honen funtsa dela zerga bat finkatzea udalerrian dauden etxe hutsei. Zerga hau %0.25 eta 0.50artekoa izanen da 1. Urtean eta %0.50 eta %1aren inguruan bigarren urtean.

Hurrengoetan %1.5 ekoa izango da. Karga hauek kontribuzioko baloreei aplikatzen zaie.

Bildutakoek irakurtzen dute ordenantza erdua eta oneritzia ematen diote. Ikusita 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazio Foru LEgearen 325. Artikulua non adierazten den hurrengoa:





FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
23/06/2026



FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
24/06/2026

“1. Toki-erregelamenduak eta -ordenantzak onartzeko, prozedura honi jarraituko zaio:

a) Toki-erakundearen osoko bilkuraren hasierako onespena.

b) Jendaurrean jarriko da, aldez aurretik Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta onespene-erabakiaren entitatearen iragarki-taulan iragarrita, hogeita hamar egunez gutxienez, auzotar eta interesdun legitimoek espedienteaz aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharra aurkeztu ditzaten.

c) Aurkeztutako erreklamazioak, eragozpenak edo oharra ebatzea, eta a) idatz-zatian aipatutako organoak behin betiko onartzea.

Hala ere, hasierako onarpenerako erabakia behin betikoa izango da erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik aurkeztu ez bada. Kasu horretan, ondorio juridikoak sortzeko, inguruabar hori, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu beharko da.

2. Herri-ondasunen aprobetxamenduak arautzen dituzten ordenantzak onartzeko, udalbatzako legezko kideen gehiengo osoaren aldeko bozketa beharko da.

3. Erregelamenduak eta ordenantzak aldatzeko, horiek onartzeko egin beharreko izapide berberak bete beharko dira.

4. Toki-erakundearen antolamenduari eragiten dioten erregelamenduak onartzeko, ez da informazio publikoa eman beharrik izango.

326. artikulua

Toki entitateek onetsitako ordenantzek eta erregelamenduek ez dute ondorio juridikorik sortuko, harik eta testua osorik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu arte eta, ordenantza fiskaltan izan ezik, Estatuko edo Foru Komunitateko Administrazioak toki-entitateei beren egintzak edo erabakiak deuseztatzeko errekerimendua egiteko ezarritako epea igaro arte.

Bildutakoek aho batez onartzen dute hasiera batez Basaburuko udalerako etxe hutsen ordenantza fiskala eta Nafarroako Aldizkari Ofizialera hasierako onespeneko iragarki hau argitaratua izan dadin agindu.

6.- Mozioak

Ez dago moziorik.

Gai zerrendatik kanpo beste gai bat dagoela aztertzeko adierazten du alkateak,

Erbiteko 7. Poligonoko 14 eta 15 lursailetan dagoen eraikinaren erauspen egoera aitortzea.

Alkateak azaltzen du Orokieta Erbiteko kontzejuak aurkeztu zuela eskaera bat Erbiteko 7. Poligonoko 14 eta 15. lursailetan dagoen etxebizitzak egoera txarrean daudelako eta istripuak ekiditzeko neurriak hartzeko.

Udal arkitektoak ikuskapen bisita egin du eta horren inguruko txostena. Txosten horren ondorioa da erauspen egoeran daudela eraikinak eta hortaz jabeari eskatu behar





FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIOZ
23/06/2026



FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
24/06/2026

zaiola neurriak hartzea segurtasuna bermatze aldera. Lehenik eta 15 eta 30 eguneko epean, arriskuan dauden elementuak kendu edo bota behar direla eta sarea jarri bai esparru publikora bai mugakide dauden lursailletara eta eraikinen perimetroan segurtasun ballak jartzea. Honen guztiaren helburua da segurtasuna bermatzea.

Bestetik eraikinera sartzeko debeku osoa aitortu behar da ere.

Udal arkitektoaren 26/0319. txostena ikusita bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 199. Artikulua jarraituz eta aho batez:

Erauspen egoera aitortzea Erbitiko 7. Polígono 14 eta 15. Lursailetan dauden etxebizitzetarako eta udal arkitektoaren ikuskapen bisitaren ondoren egindako 26/0319 txostenaren arabera, eta hortaz eraikinera sarrera eta erabilera debekatzea.

Bestetik eskatzea lursailen jabeari 15 eta 30 egunen epean esparru publikora edo mugakide diren lursail pribatuetara erortzeko arriskua duten elementu guztiak kentzea edo sare bat jartzea erortzea saihesteko. Beriziki kontutan hartu egoera txarrean dauden hormen gaineko elementuak bide publikoa edo lursail pribatura dauden mugakideeedo.

Gainera arriskua dagoela adierazten duten babes-hesiak jartzea, lursailaren perimetro osoan, harresien ondoko eta teilatu-hegalaren azpiko arrisku-eremura sartzea eragozten dutenak. gutxienez 2 m-ko altuera izan beharko dute hesiek, eta gutxienez 2 m-koak fatxadetan.

Erabaki hau Erbitiko 7. Poligonoko 14 eta 15 lursailen jabeari jakinaraztea agintzen dute bildutakoek.

7 - Batzordeen informazioa.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

Maiatzaren 31ean burutuko da Basaburuko BTT martxa eta ekainaren 13an Beramendin sega txapelketa. Bukatu zen pala eta frontenis txapelketa Latasako frontoian burutu ziren finalekin.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Tikiena haur eskolako hezitzaileen zerrenda osatzeko azterketa apirilaren 25ean burutu zen, 17 pertsona bertaratu ziren eta guztiak gainditu zuten. Hurrengo ikasturterako Ausolan enpresak ez du jantoki zerbitzua eskainiko eta beste aukera batzuk aztertzen ari dira Ultzamako udalarekin haien haur eskolari ere zerbitzua etengo baitiote.

Ogasun Batzordea. Mikaela Elizalde ematen du informazioa.





FIRMADO POR

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIOZ
23/06/2026



FIRMADO POR

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
24/06/2026

Ogasun eta Etxebizitza batzordeak elkartu dira eta Basaburuko etxe hutsen egoera aztertu nahi dute, alokairuan neurriak hartzeko moduan ikusten.

Kultura eta Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Uztaila bukaera eta abuztuan ludoteka zerbitzua egongo da eskolan, udalak Euskarabidean sartuko du gastu hau. Ekaineko Basaburuko egunean udalak parte hartuko du kontzertu bat eta herri kirol ekitaldiaren gastuetan.

Abuztuan pertseiden inguruko jardunaldia egingo da.

Maiatzaren 24an Bertsozale elkarteko eguna burutuko da eta ganbara erabiliko dute bazkaria egiteko eta bideo proiektzioarako adinduen gela.

Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Eguneko egoitzako langileak hautatzeko azterketak burutu dira baina zuzendari lanpostura inork ez zituenetz betetzen baldintzak, bigarren saiakera bat egin da azterketa bidez eta lan egite prest dagoen pertsona bat dago aipatutako azterketa gainditu duena.

8.- Informazio orokorra.

-PSTD proiektuak bukatuak daude eta justifikatuak

- Sendak markatzeko proiektua aurrera doa, hau ere Cederna Garalurrek bidez egindakoa.

- Taxi zerbitzua martxan dago jada, Sakanaldean mugikortasunaren inguruko hitzaldi batean eredu bezala ezagutarazi zuen alkateak.

Orokieta Erbitiko kontzejuarekin bilera egin da udalarekin lankidetzan egiteko administrari lanak udaletik egiteko.

9. Erregu-galderak.

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeke ez dagoenez eta arratsaldeko 20:05 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du

